

## **EZ OHIKO UDALBATZARRA**

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2008ko abuztuaren zazpian, goizeko hamaikak hogeit gutxiago direnean, bildu dira, Ez Ohiko Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Luis Arzallus Amenabar-Zinogotzia.

Jose Luis Albisua Lasa-Zinegotzia.

Bittor Astigarraga Zugasti-Zinegotzia eta Iosune Arruti Eizagirre-Zinegotzia ez dira bilkura honetan egongo arrazoi justifikatuengatik.

Idazkari lanetan, Leire Arteaga Zumeta Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

### **1.- AURREKO UDALBATZARREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONESPENA.**

Hurrengo udalbatzarrean aztertuko eta onartuko da.

### **2.- KOMUNIKAZIO OFIZIALEN BERRI EMATEA.**

- Alkizako udalbatzarrak bat egin du Gazumeko parke eolikoari buruz bidalitako mozioarekin eta Errezilgo Udalari bere babesa eskeini dio.

### **3.- JUBILATUEN BIDAIA HONDARRIBIRA. EGITARUA ETA AURREKONTUAREN ONARPENA.**

Alkateak hitza eman dio Luis Artzallus Amenabar zinegotziari. Honek Batzorde informatzaileak onartutako diktamenaren berri eman du:

2008ko uztailaren hogeita seian Errezilgo jubilatuen eta pentsiodunen bidaia ospatu zen. Bidaia Hondarribi herria bisitatu eta ezagutzeko antolatu zen turismo gidari batekin. Katamaranean ere ibiltzeko aukera izan zuten. Azkeneko momentuan partaideetako batekin ezustekoa izan zuten.

Aurrekontua: autobusa: 450 euro. Udal ordezkarien eta autobus gidariaren bazkaria: 135 euro. Hamaiketakoak: 266 euro. Turismo gidaria eta Katamarana: 261 euro eta azken momentuko ezbeharrak dela eta hartu behar izan zuten taxia: 87 euro. Guztira: 1.199 euro kostatu zen jubilatuen bidaiaren antolaketa.

Luis Artzallus Amenabar zinegotziak esan du partaideak gustora azaldu zirela eta balorazio positiboa egin du.

Ondoren Alkateak proposatu du ondoko erabakiak onartzea:

Lehena.- 2008ko uztailaren hogeita seian egindako jubilatuta eta pentsiodunen bidaiaren egitaraua eta aurrekontua onartzea.

Bigarrena.- Aipatu antolaketak sortutako gastua onartu eta 2008 ekitaldiko aurrekontuaren 1.0000.226.313.00.01 kontu sailari gastua egozte.

Bozketan egin dute ondoko ondorioekin: aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa, kontrako botorik ez dago eta abstentziorik ez dago. Beraz, akordioa onartua gelditzen da.

#### **4.- AKERTXOKO: NERABEENTZAKO PROIEKTUAREN PROPOSAMENAREN ONARPENA.**

Alkateak hitza hartuz azaldu du Batzorde informatzailean onartutako diktamena. 2007an guraso talde batek ertain txoko bat jartzeko eskaera aurkeztu zuten Udal Idazkaritzan. Udalak erantzun zien proiektu bat aurkeztu behar zutela eskaera aintzat hartzeko. 2008ko martxoaren hamabian haur txokoaren proposamena aurkeztu zuten. Errezilgo gazteleku eta liburutegiko teknikariari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko gazte arloko dinamizatzaileari proiektuaren ideia interesgarria iruditu zitzaie eta aurrera ateratzeko aukerak aztertzen hasi ziren. Asier Gurrutxaga Zabala egungo Errezilgo gaztelekuko kudeaketa daramanak memoria bat aurkeztu du Errezilgo ludotekaren erabilera eta kudeaketa egiteko. Kudeaketa zeharka egingo litzateke udalez kanpoko enpresa bat kontratatuz, zerbitzua emateak duen kostu eta irabazi industrialak kalkulatu eta ordaindu zerbitzua emateko kontratatzen den enpresarekin. Egun Udalak Asier Gurrutxaga Zabalararekin kontratatuta daukanez Errezilgo gaztelekua eta liburutegiaren erabilera eta kudeaketa, nerabeentzako proiektuaren proposamen hau kontratu horri erantsitako beste zati bat kontsideratuko litzateke, haren kontratua aldatuz. Proposatzen den aurrekontu kopurua bi proiektuentzako, gaztelekua eta ludoteka 49.000 eurokoa da. Foru Aldundiko teknikariak egindako azterketaren arabera proiektu honek finantziarioa izango luke Foru Aldunditik, dirulaguntza moduan. Proiektu honi lotutako beste gaia da udalak ez dakiela proiektua beharrezkoa den eta herritarrek erabiliko duten. Horregatik proposatzen da frogatzea epe bat ematea proiektuari. Iraila hasieran proiektua aurkeztu eta martxan jarri eta abenduan balorazioa aurkeztu behar du enpresa kudeatzaileak. Balorazio txosten horretan aztertuko du ze ekintza mota egin diren, zenbat hurrek erabili duten zerbitzua eta kostua. Ondoren Udalak koste-errendimendu balorazioa egingo du zerbitzua modu iraunkorrean martxan jartzeko erabakia hartuz edo proiektua atzera botaz.

Ondoren Alkateak proposatu du ondoko erabakiak hartzea:

Lehena.- Errezilgo ludotekaren erabilera eta kudeaketa proiektua irailean aurkezteko eskatzea Asier Gurrutxaga Zabala Jn.ari.

Bigarrena.- Aipatu proiektuaren froga-epea 2008ko irailetik 2008ko abendura bitartean jartzea. Epe hau igaro ostean Asier Gurrutxaga Zabala Jn.ak balorazio txostena aurkeztu beharko dio Udalari.

Hirugarrena.- Aipatu proiektuaren gastua onartu eta gastu hori estaltzeko 2008 ekitaldiko aurrekontuan gastua estaltzeko aurrekontu aldaketa egitera konprometitzea Udala.

Bozketa egin dute ondoko ondorioekin: aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa, kontrako botorik ez dago eta abstentziorik ez dago. Beraz, akordioa onartua gelditzen da.

#### **5.- ERREZILGO HIRI ANTOLAKETAKO ORDEZKO ARAUEN 3. H.G.E-KO 3/1 I.I.B.-EN HIRITARTZE PROIEKTUAREN 1. FASEA ETA HERRI GUNEKO GASIFIKAZIO OBRA PROIEKTUAREN 1. ZERTIFIKAZIOAREN ONARPENA.**

Alkateak Errezilgo Hiri Antolaektako Ordezko Arauen 3. H.G.E.-ko 3/1 I.I.B.-en Hiritartze proiektuaren 1. fasea eta herri guneko gasifikazio obra proiektuaren 1. zertifikazioa aurkeztu dutela adierazi die zinegotziei. Zertifikazioa obra zuzendaritzak egindakoa da orain arte egindako obrei egokitutakoa.

Alkateak ondoko proposamenari buruzko bozketa egitea proposatu du:

Lehena.- Errezilgo Hiri Antolaektako Ordezko Arauen 3. H.G.E.-ko 3/1 I.I.B.-en Hiritartze proiektuaren 1. fasea eta herri guneko gasifikazio obra proiektuaren 1. zertifikazioa onartzea.

Bigarrena.- 2008 ekitaldiko aurrekontuaren 1.0000.622.512.00.01 kontu sailari egoztea gastua.

Bozketa egin dute ondoko ondorioekin: aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa, kontrako botorik ez dago eta abstentziorik ez dago. Beraz, akordioa aho batez onartu dute.

#### **6.- HITZAKO DIRULAGUNTZA.**

Alkateak Hitzakoek dirulaguntza eskatu dute 2008 ekitaldirako. Iaz jarritako baldintzak betetzen jarraitzen dutela ikusirik dirulaguntza ematea proposatzen da.

Alkateak ondoko proposamenari buruzko bozketa egitea proposatu du:

Lehena.- Urola Kostako Hitzari 1.200 euroko dirulaguntza luzatzea.

Bigarrena.- Aipatu gastua onartzea eta 2008 ekitaldiko 1.0000.481.451.00.02 kontu sailari egozteko gastu hori.

Bozketa egin dute ondoko ondorioekin: aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa, kontrako botoak ez dago eta abstentziorik ez dago. Beraz, akordioa onartua gelditzen da.

#### **7.- ERREZILGO HIRI ANTOLAETKO ORDEZKO ARAUEN 4. H.G.EKO 4/1.-EN ALDAKETAREN AURRERAPENAREN ONARPENA.**

2008ko ekainaren 6an Jose Manuel Urreizti Agirre Jn.ak Errezilgo Hiri Antolaketako Ordezko Arauen 4. H.G.E.ko 4/1 H.I.B unitatean zenbait aldaketa egiteko proposamena aurkeztu zuen.

Ordezko Arauen aldaketarekin zera proposatzen da: 2 etxebizitza 150 m<sup>2</sup>koak egin beharrean 6 etxebizitza 50 m<sup>2</sup>koak egitea da, horretarako lehendik planteatuta dauden hiru solairuko etxebizitzak solairu bakarreko etxebizitzak bihurtzen ditu. Garaje plazak gutxitzen dira baino nahikoak dira planteatzen diren etxebizitzetarako. Aldaketa puntualarekin etxebizitza kopurua aldatzen da, 8tik 12ra pasaz. Udal arkitektoak txostena egin du honek aldeko izaera du eta hirigintz arlotik ez zaio eragozpenik ikusten.

Alkateak adierazi du aztertu behar dutela ea Errezilgo herrian horrelako etxebizitza tipologia bultzatzea interesatzen zaien edo ez. Gaia Batzordean aztertu zenean proposamen bat aurkeztu zela. Udalak Urlaga eraiketarako enpresari egiten ari diren etxebizitzak interesa duten herritarrei saltzeko gestioa egitea, asumitu daitekeen prezio bategatik. Gero herritar horiek amaitu ditzatela etxebizitzak eta beraien artean banatu. Hori aurrera ateratzeko Etolurrekin hitz egingo duela. Era guztietara gai hori alde batera utzi eta planteatutako ordezko arauen aldaketan zentratu dira.

Alkateak ondoko proposamenari buruz bozketa egiteko proposatu du:

Lehena.- Errezilgo Hiri Antolaketako Ordezko Arauen 4. H.G.E.ko 4/1 H.I.B unitatearen hirigintz aldaketaren aurrerapena onartu eta erakusketa publikoan jartzea 30 egunez.

Bigarrena.- Erabaki honi publizitatea ematea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarkien taulan eta egunkari batean argitaratuz. Era berean, unitate horretako jabeari ere zuzenean jakineraztea.

Bozketa egin dute ondoko ondorioekin: aldeko botoak batere ez, abstentzioak ez eta kontrako botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa. Beraz, akordioa ez da onartzen.

## **8.- URKOMEKO ERREZILGO UDAL ORDEZKARIEN ALDAKETA PROPOSAMENAREN ONARPENA.**

2007ko uztailearen hamabian egindako ez ohiko bilkuran udalbatzarrak erabaki zuen Urkomeko ordezkariak izatea titular gisa: Joseba Iñaki Labaka Beristain Jn eta ordezko gisa: Iñaki Oiartzabal Zinkunegi. Proposatzen da ordezkari horiek aldatzea. Urkomeko udal ordezkari titularra Iñaki Oiartzabal Zinkunegi izatea eta ordezkoa Joseba Iñaki Labaka Beristain.

Beraz, proposatzen da:

Lehen.- Urkomeko udal ordezkariak aldatzea, hemendik aurrera ordezkari titularra Iñaki Oiartzabal Zinkunegi Jn. izendatzea eta ordezko gisa Joseba Iñaki Labaka Beristain Jn. izendatzea.

Bozketa egin dute eta bertan dauden kide guztien aldeko botoarekin erabaki dute proposamena onartzea.

## **9.- 2008 EKITALDIKO KULTURA ETA KIROL JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO BATZORDEAK EGINDAKO PROPOSAMENAREN ONARPENA.**

2008ko martxoaren hamahiruan egindako ez ohiko bilkuran udalbatzarrak erabaki zuen “kultura eta kirol jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko araudia” hasera batez onartzea eta erakusketa publikoan jartzea. Iragarkia 2008ko martxoaren hogeita hamaikan argitaratu zen 60 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Erakusketa publikoko epean Atala Kultur Taldeak errekurtsioa aurkeztu zuen. 2008ko maiatzaren zortzian Errezilgo udalbatzarrak ohiko bilkuran erabaki zuen aurkeztutako errekurtsioaren zati bat onartzea, ordenantza behin betikoz onartzea eta bere osotasunean argitaratzea GAOn. Ordenantza 2008ko maiatzaren hamabostean argitaratu zen.

Dirulaguntzak emateko ordenantzaren onespenezekin batera erabaki zen 2008 ekitaldiko deialdia egitea, eskaerak aurkezteko epea maiatzaren hogeita hamaika jarritz. Arauzko epean hamaika eskaera aurkeztu dira.

Diru laguntzak emateko ordenantzaren 11. artikuluan aipatzen den Batzordea eratu eta aurkeztutako diru laguntza eskaerak aztertu ostean Batzordeak ondoko proposamena luzatu dio Udalbatzarrari.

## **DIRUZ LAGUNTZEA PROPOSATZEN DIREN KULTURA ETA KIROL JARDUERAK:**

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	DIRULAGUNTZA
GAZTE TALDEA	IDI DEMAK	1.000
ESCUADERIA LAGUN ARTEA	RALLYSPRINT	150
GORKA TOLOSA	IÑAUTERIAK	150
ATALA	KULTUR EKINTZAK	1.000
ERNIARRAITZ	BERTSOLARITZA	582
TOKI ALAI	IKASTAROAK	1.000
ERNIOZALEAK	MENDI IBILBIDEA	1.000

#### DIRU LAGUNTZA EZ EMATEA PROPOSATZEN DIREN PROIEKTUAK

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	EZ EMATEAREN ARRAZOIAK
ATALA	ZOKOMIAN ALDIZKARIA	Ez ditu zehazten aurtengo ekintzak Ordenantzaren 8. artikulorearen arabera kanpo geratzen dira, ondasun higigarri eta higiezin eskuraketa
ATALA	IBARBI SAGARRA	Ez ditu zehazten aurtengo ekintzak
LAGUN ONAK TXIRRINDULARI ELKARTEA	CDa 25. URTEURRENA	Ordenantzaren 8. artikulorearen arabera kanpo geratzen dira, herritik kanpora egiten diren ekintzak
ERREZILGO AZOKA	ERREZIL SAGARRAREN AZOKA EGUNAREN ANTOLAKETA	Beste dirulaguntza baten bitartez egitea proposatzen da.

#### Aurrekari hauekin **ERABAKITZEN DA:**

Lehena.- Kultura eta kirol jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko Batzordeak egindako proposamena onartzea.

Bigarrena.- Erabaki honek eragiten duen gastua onartzea eta 2008 ekitaldiko aurrekontuaren 1.0000.481.451.00.01 kontu sailari egozte.

Hirugarrena.- Erabaki den dirulaguntzaren % 60aren ordainketa egitea onuradunei dirulaguntza jakinerazten zaienetik aurrera.

Laugarrena.- Proposamenak aurkeztu dituzten guztiei erabaki hau jakineraztea eta Udaletxeko Iragarkien Taulan argitaratzea.

Bozketa egin dute eta bertan dauden kide guztien aldeko botoarekin onartu da.

#### **10.- 2009 EKITALDIAN KULTURA ETA KIROL JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIAREN ONARPENA.**

Alkateak jakinerazi du 2009 ekitaldian kultura eta kirol jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko deialdia egiten dela.

Deialdiaren oinarri arautzaileak: Errezilgo udalbatzarrak 2008ko maiatzaren 8an onartutako kultura eta kirol jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko ordenantza arautzailea. 2008ko maiatzaren 15eko 92 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Dirulaguntza egozten zaion aurrekontu kredituak: 1.0000.481.451.00.01: 7.000 euro.

Dirulaguntzaren edukina, baldintzak eta helburuak: Errezilgo herrian Kultura eta kirol mailan jarduerak egitea.

Dirulaguntza hauek lehiakortasun sistemaren bitartez emango dira.

Dirulaguntza eskatzeko baldintza eta horiek egiaztatzeko modua: azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. eta 14. artikulotako eskakizun eta betebeharrak. Dirulaguntza honen onuradunak izan daitezke herrian helburu publiko edo sozialeko kultur eta kirol jarduerak sustatzen dituztenak.

Prozedura honetan izapidaketa eta erabakia hartuko duten organoak: kultura eta kirol jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko 2008ko maiatzaren 8ko ordenantza arautzailearen 11. artikulorekin batera eratu den batzordea, zeinak aurkeztutako eskaerak aztertuko ditu eta Udaleko udalbatzarrak behin betiko erabakia hartuko du.

Eskaerak aurkezteko epea: 2008ko irailaren 30ean amaituko da.

Erabakia hartu eta jakinerazteko epea: Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 3 hilabeteko epea. Epe hori igarota, ez bada ebazpenik eman, eskaera ezeztu egin dela ulertuko da ixiltasun administratiboaren bitartez.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazio eta informazioak:

- Eskabide orria.
- Eskatzailearen N.A.N edo I.F.Z fotokopia.
- Zerga betebeharrak eta gizarte asegurantzaekin egunean dagoen ziurtagiria.
- Eskatzailea den pertsonak edo elkarteak udalerrian orain arte egindako jarduerak.
- Dirulaguntza eskatzen duen jardueraren proiektua.
- Dirulaguntza eskatzen duen jardueraren aurrekontua, izango dituen gastu eta sarreraren aurrikuspena. Hemen zehaztu beharko da, jarduera egiteko Udal hau ez den beste entitate publiko zein pribatuei egindako dirulaguntza eskaerak .
- Jardueraren bideragarritasuna azaltzen duen txostena.

Dirulaguntza emate edo ez emate erabakiak amaiera emango dio bide administratiboari.

Eskaeren balorazio erizpideak: (50 puntu):

- Jardueraren/ekintzaren interes orokorra: 10 puntu.
- Kalitatea: 10 puntu.
- Herriko bizitza sozio kulturean eta herritarren parte hartzean izan dezaken eragina: 10 puntu.
- Herritarren osotasunari zuzendutakoa izatea: 10 puntu.
- Eskatzailearen errekurtsio ekonomikoak eta jarduerarekin lortu ditzakenak (sarreraren kobrantza etabar.): 10 puntu.

Jakinerazteko eta argitaratzeko bidea: Erabakia pertsonalki edo posta ziurtatu bitartez jakineraziko da eta Udaletxeko iragarkien taulan argitaratuko da.

Aurreko deialdiaren batean eskaerak aurkeztu dituzten eskatzaileek ez dituzte aurkeztu beharko Udalaren esku dauden dokumentoak, beti ere aurkeztu edo eman zen data eta organo edo bulegoa zein izan ziren esaten bada eta dagokion prozedura amaitu zenetik 5 urte baino gehiago ez badira igaro.

Beraz, proposatzen da:

**Lehena.**- 2009 ekitaldian kirola eta kultur jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko deialdia egitea, eskaerak aurkezteko azken eguna irailaren hogeita hamar jarritz.

**Bigarrena.**- 2008 ekitaldiko aurrekontuaren 1.0000.481.451.00.01 partidari egozteko gastua eta ez dagoenez aurrekontu nahikorik Udalak konpromezua hartzen du aurrekontu aldaketa egiteko.

**Hirugarrena.**- Deialdiari publizitatea ematea Gipuzkoako aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarkien taulan argitaratuz.

Bozketa egin dute eta aho batez onartu dute erabakia.

#### **11.- ORDAINAGIRIEN ONESPENA.**

Ez daude.

#### **12.- ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

- B.G.T Andereari baserriaren ondoan daukan garajearen jarraian ardi gaztak heltzeko kamara bat jartzeko obra baimena.
- T.A.M Jn.ari Mutiainzar baserrian berrikuntza lanak egiteko baimena.
- JA.A.A Jn.ari Armendi baserrian obra txikiak egiteko baimena.

#### **13.- ESAIT TALDEAREN 08.08.07KO HARRERA.**

Errezilgo herriaren izenean eta errezildarren izenean, ongi etorriak Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldekoei.

Ekitaldi xume bat prestatu dizuegu gaurko honetan, eta aldi berean zuek egiten ari zaretan ekimenei modu honetan bat egin eta bultzatzera animatzen zaituztegu.

Euskerarekin batera kirola da zalantzarik gabe Euskal Herria herri bat dela aldarrikatzeko modurik egokiena. Horrexegaitik euskal selektzioaren ofizialtasuna eskatzen du Errezilek ere.

Kirol arloan Errezilek hainbat kirolari eman ditu urte askotan eta kirolari haundiak gainera; momentu honetan aurten txaplaekin ibili direnak gogoratuko ditugu, bakarka zein taldezka:

- Aimar Irigoien, harrijasotzailea.
- Gorka Apalantza, auto gidaria.
- Iosu Uzkudun, pilotaria
- Andoni Ibarbia, iron mana

Besterik gabe, animoak eta segi aurrera.

#### **14.- 33/01, AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN AURKAKO AUZIAREN AURREAN EAE-ANV TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Alkateak hitz eman dio Koldo Artzallus Amenabar zinegotziari honek ondoko mozioa bozkatzeko proposamena egin du:

- Elkartasun eta babesa luzatzen diegu amnistiaren aldeko mugimenduko 27 auziperatu eta mugimendu honetako militante guztiei.
- Kriminalizatu nahi den amnistiaren aldeko mugimenduak bere lanean jarraitzeko duen zilegitasuna aldarrikatzen dugu espainiako estatuaren eta sistema judizialaren aurrean eta bere lan sozial eta politikoan jarraitzeko ezartzen ari zaizkien trabak gainditzeko exigentzia luzatzen dugu. Auzi honen amaierarekin batera, debeku eta kriminalizazio ekintzak amaitzea.
- Eskubide zibil eta politikoen urraketa, tortura eta euskal herritarren kontrako errepresio bidegabearen zerrenda amaigabea ahalbidetzen duen auzitegi nazionalaren desagertzea aldarrikatzen dugu.
- Herriari onartutako agiria jakineraziko zaio.

Bozketa egin dute ondoko ondorioekin: Aldeko botoak Luis Artzallus Amenabar, Jose Luis Albisua Lasa, kontrako botoak ez daude eta abstentzioak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain eta Luis Berrondo Lanceta.

Beste gairik ez dagoenez, eguerdiko hamabiak hamar gutxiago direnean, Alkateak ez ohiko udalbatzar hau amaitutzat ematen du eta nik, Idazkari gisa Akta jaso dut.

Alkateak

B. Idazkari Kontuhartzaileak